

Europar oso patogenoa den H5N8 Hegazti-Gripearen egoeraren eguneratzea

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzia, Belgika eta Suedia oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du. MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta bertan, Frantzia, Belgika eta Suedia oso patogenoa den hegazti-gripearen lehenengo kasuak antzeman direla adierazi du.

Europar hegazti-gripearen agerraldi berrien egoerari buruz [2020/11/06an argitaratutako eguneratzearen ondoren](#), MAPAk **beste ohar bat** argitaratu zuen 2020/11/17an. Ohar horretan eguneratu egin du gaixotasun horren egoera eta **agerraldi guztiak bildu ditu, Frantzia, Belgika eta Suedia izandako lehen kasuekin batera.**

ADNS erakundeak **oso patogenoa den (IAAP) hegazti-gripearen** fokuen **268 jakinarazpen** jaso ditu udazken honetan, **2020/10/17an** Holandan beltzarga mutu baten lehen kasua baieztatu zenetik. Besteak beste:

- 211 Alemanian
- 38 Herbehereetan
- 8 Danimarkan
- 5 Erresuma Batuan
- 5 Belgika
- 1 Irlandan

H5N8 azpimota da gehien antzematen den (252 foku) oso patogenoa den hegazti-gripearen birusa, eta **EURLren** arabera, **uztailean Errusian eta Kazakhstanen** antzeman zen berbera da, baina **2020ko lehen erdian** EBn zirkulatu zuenaren **bestelakoa**.

Jakinarazitako foku guztien artetik, hau azpimarratu behar da:

- 255 foku hegazti basatietan jakinarazi dira
- 12 foku kortako hegaztietan
- 1 foku hegazti gatibuetan.

Frantziako agintariek gaur jakinaraziko dute oso patogenoa den hegazti-gripearen lehen fokua Korsikan hegazti gatibuetan, baina **dagoeneko adierazi dute zein neurri** hartuko dituzten arrisku-eremuetan gaixotasun horri aurre egiteko; hain zuzen, hauek izango dira:

- Kortako hegaztiak konfinatzea.
- Hegaztien pilaketa debekatzea.
- Ehiza-hegaztiak garraiatzea eta askatzea debekatzea.
- Ehizatzeoko apeuak erabiltzea debekatzea.

Frantziako fokuen hurbiltasunak eta hegazti basatiek gure lurraldean dituzten migrazio-ibilbideek handitu egiten dute arriskua maila handi/ertainera, MAPAk 2020/11/11n adierazi zuen moduan.

Horren ondorioz, **hainbat neurri zehatz hartu behar izan dira APA 2442/2006 Aginduaren II. eta III. eranskinetan jasotako udalerrietan, eta agindu horretan jasotako hainbat udalerriri**

eragiten diete Euskadin.

Udalerri horietan, datozen asteotan aplikatuko dira neurri horiek. Autonomia mailan, **Arabakoak dira** agindu horretako II. eta III; eranskinetan **arrisku bereziko** eremu gisa sartu diren **udalerriak**. Hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**
- **Barrundia**
- **Elburgo/Burgelu**
- **Legutio**
- **Zigoitia**

Jakinarazpena: Espainian hegazti-gripearen arrisku handia/ertaina

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, eta, bertan, jakinarazi du hegazti-gripearen zirkulazioaren arriskua handia/ertaina dela, Europan gaur egun gaixotasun horrek duen egoera aintzat hartuta; hortaz, hainbat zaintza- eta kontrol-neurri ezarri ditu. Euskadin, gaixotasun hori sartzeko arrisku bereziko eremu hauek ezarri dira: **Arratzua-Ubarrundia, Barrundia, Elburgo/Burgelu, Legutio eta Zigoitia.**

Europan (Holanda, Alemania eta Erresuma Batua) duela gutxi gaixotasun horren inguruan gertatutako agerraldien egoerari buruz [2020ko azaroaren 4an argitaratutako](#) eguneratzearen ostean, MAPAk beste ohar bat argitaratu du. Ohar horretan, Espainian birusa sartzearen arriskua aztertu du. Honako hauek dira ondorioak:

1. **Arriskua handia da APA/2442/2006 Aginduaren II. eranskinean arrisku bereziko eremu gisa sartutako udalerrietan.**
2. **Arriskua ertaina da agindu horren II. eranskinean zaintza bereziko eremu gisa sartutako udalerrietan.**

Eta, ondorioz, **MAPAk uste du beharrezkoa dela hainbat neurri espezifiko hartzea** [APA/2442/2006 Agindua](#)ren II. eta III. eranskinetan zehaztutako udalerrietan. Honako hauek dira neurrien helburuak:

- **Biosegurtasuna sendotzea:** kontaktu zuzena edo zeharkakoa ekiditea kortako hegaztien eta hegazti basati migratzaileen artean.
- **Zaintza pasiboa sendotzea,** bai hegazti-ustiategietan, bai hegazti basatiei dagokienez.
- Eranskinetan sartutako udalerrietako **hegazti-ustiategiei buruzko datuak eguneratzea.**
- **Aldian-aldian kontrol sanitarioak eta analisiak egitea** arrisku-ebaluazioaren arabera.
- **Debekatzea kortako hegaztiak egotea animaliak biltzen diren zentroetan.**

Autonomia mailan, **Arabakoak dira** agindu horretako II. eta III; eranskinetan **arrisku bereziko** eremu gisa sartu diren **udalerriak**. Hauek dira:

- **Arratzua-Ubarrundia**

- **Barrundia**
- **Elburgo/Burgelu**
- **Legutio**
- **Zigoitia**

Aginduak, **halaber**, Araban hegazti-gripea sartzeko arrisku bereziko eremutzat hartzen ditu hezegune hauek (nahiz eta ez duen neurri espezifikorik ezarri): **Salburuako baltsak, Zadorra urtegia eta Santa Engrazia urtegia**. Azkenik, aintzat hartuta **hegazti horien migrazio-bideak gure lurraldetik oso hurbil daudela, oso-oso garrantzitsua da azpimarratzea puntu hauek sendotu egin behar direla:**

- Susmo guztiak berehala jakinaraztea administrazio eskudunari (foru-aldundiak).
- Hegazti basatiekiko kontaktu zuzena eta zeharkakoa saihestea.
- Zaintza pasiboa, hegazti-ustiategietan eta hegazti basatiei dagokienez.
- Abeltzainak, ustiategietako albatariak, ehiztariak eta, oro har, herritar guztiak sentsibilizatzea oso patogenoa den hegazti-gripeari, horren aurkako neurriei, eta hegazti gaixo edo hilen berri emateko mekanismoei buruz.

Murrizketa-neurri berriak, mingain urdinaren 8 serotipoaren foku berriak direla eta

MAPAk informazio-ohar bat argitaratu du, Nafarroa, Gipuzkoa eta Huescako ustiategietan mingain urdinaren 8 serotipoaren 4 foku agertu direla jakinarazteko. Hori dela eta, murrizketa-eremu berriak ezarri dira serotipo horren aurkako txertaketarako.

Aragoiko Gobernuak atzo konfirmatu zuen mingain urdinaren serotipo hori detektatu dela Broto udalerriko (Huesca) behi-ustiategi batean. Azken hori zenbatuta, lau dira jada aurreko urteko urriaren 21etik deklaraturako fokuek. Nafarroan detektatu zen aurreko urtean animalien gaixotasun hori lehen aldiz, penintsulan 10 urtez desagertuta egon ostean. Ondoren, 2020/10/29an, bi foku jakinarazi ziren, bat Orreagan (Nafarroa) eta beste bat Aian (Gipuzkoa).

Horiek horrela, beharrezkoa da murrizketa-neurri berriak ezartzea, hiru autonomia-erkidegoetako hainbat eskualderi eragingo dietenak. Datozen egunetan argitaratuko dira, Ministerioaren Agindu bidez. Agindu horretan, murrizketa-eremu bat ezarriko da deklaraturako 4 fokuen inguruan; eta, leku horietan, honako neurri hauek ezarriko dira:

- Mingain urdinaren 8 serotipoaren aurkako nahitaezko txertaketa ezartzea 3 hilabetetik gorako ardi eta behi guztientzat.
- Gaixotasunarekiko sentikorrak diren animalia-espezieen lekualdatzeak murriztea.
- Zaintza pasiboa indartzea, eta edozein susmo jakinarazteko gomendioa zabaltzea.
- Hausnarkari-ustiategietan intsektuak hiltzeko jarduketak indartzea.

Abereak gaixotasun horren aurka babesteko protokoloak ezarri egiten du txertoa eman behar dela nahitaez fokuen inguruko 50 kilometroko eremuan; gainerako eremuetan, boluntarioa izango

da. Maila autonomikoan, horrek Gipuzkoako ia lurralde osoari eragingo dio, eta Bizkaiko eta Arabako lurraldearen zati bati.

Edonola ere, azienda osoaren osasuna bermatze aldera, eta sektorean izan ditzakeen eraginak murrizteko, Gipuzkoa eta Bizkaiko Foru Aldundiek nahitaezko txertaketa ezarri dute beren lurraldeetako behi eta ardi guztientzat, eta beren gain hartuko dute txertoen kostua. Arabako Foru Aldundiak, bere aldetik, babes-eremuko txertaketa bere gain hartuko du, eta txertaketarako borondatezko kanpaina bat sustatuko du lurralde osoan.

Q Sukarraren kontrola eta zaintzarako Euskadiko Plana

Gaur argitaratu da Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren 2020ko otsailaren 19ko Ebazpena, zeinaren bidez onartzen eta jakitera ematen baita Euskadin Q Sukarra Zaintzeko eta Kontrolatzeko Plana.

Plan horretan biltzen dira hainbat ekimen biltzen ditu, zehazki honako hauek: Euskadiko ardi- eta ahuntz-aziendaren gaixotasunaren jarraipena egiteko, arriskua ustiattegietan kontrolatzeko eta animaliekin kontaktua duten langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko.

Kalitatezko ardi- eta ahuntz-esnea ekoizteko gakoak

Gaixo dauden animalien esneak elikadura intoxikazioak eragin ditzake. Horregatik, ezinbestekoa da gaizo dauden animaliak ez jeiztea eta beren esnea eraldatzera ez bidaltzea. Dena den, esne hau bidali baduzu, abisatu eraldatutako produktuak gainbegira ditzaten.

- Animaliak osasuntsu eta ondo elikatuta daudela
- Instalazioak egoera onean daudela
- Jezteko ekipoaren garbiketa eta mantenua
- Higiene eta maneiu jardunbide egokiak
- Esnearen aldizkako analisiak eta jarduketak kontaketa altuak daudenean

Arazoak ekiditzeko, gomendagarria da esne-kalitate programei atxikitzea, gehienetan administrazio publikoak lagunduta.

- Lursailean albaitarien bisitak izatea
- Artaldea osasuntsu dagoela gainbegiratzea
- Gaixotasunak prebenitzeko planak
- Jezteko ekipoen berrikuspena

- Maneiatzeko errutinetarako aholkularitza
- Ustiapenaren Higiene Planak
- Analisisien jarraipena eta egiaztatpena
- Arazoen aurrean jarduteko jarraibideak

Aplikagarria baldintza higienikoen malgutasuna okindegi eta barazki-sektoreetan

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak EHAAn argitaratu berri dituzte Euskadiko bolumen txikiko ustiategiei egokitutako irizpide higieniko eta sanitarioak ofizialki ezartzen dituzten aginduak; zehazki, okindegi eta barazki ekoitzi eta merkaturatzen dituzten ustiategiei dagozkienak:

AGINDUA, 2019ko otsailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez [jatorri begetaleko produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak](#) onartzen baitira.

AGINDUA, 2019ko otsailaren 5ekoa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira [okintza, pastelgintza eta iringintzako produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko-sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak](#).

Hemendik aurrera, ogi eta pastelgintza sektorean kantitate gutxi eraldatzen duten obradoreak beren egoerara egokitutako betekizunak izango dituzte:

Zein produktu?

Ogi eta opil arruntak; Pastelgintza, konfiteria eta gozogintzako produktuak; Irinak (artoa, garia eta abarrak) eta Ogi arraspatua.

Zein bolumen?

- **Okintzako sektorean:** gehienez 1.250 kg irin astean.
- **Pastelgintzako sektorean:** lantegiko langileak 3 izango dira gehienez.

[Kontsultatu laburpen triptikoa -OGIA-](#)

Zein produktu?

Kontserba begetalak eta ozpinetakoak; Marmeladak eta menbrilloa ; Hozituak (germinatuak), Zukuak eta deribatuak; Jatorri begetaleko produktuak zuritu, zatitu, deshidratatu, hartzitu, lehortu eta/edo egostea eta Ortuari fresko higienizatuak (IV. Gamakoak).

Zein bolumen?

- **Barazkiak:** eraldatuaren 2.500 kg/urte baino txikiagoa.
- **Zukuak:** 5.000 litro/urte baino gutxiago.

[Kontsultatu laburpen triptikoa -Begetalak-](#)

Euskadiko sektore-agentetek, Foru-Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Osasun Sailak elkarlanean osatu dituzte arauok, ELIKA Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak koordinatuta eta aholkatuta.

[Argitaratuta jarduera txikietarako osasun- araudia egokitzen dituen Aginduak 18/01/29](#)

Eusko Jaurlaritzako **Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegitureteko eta Osasun** Sailek, EHAAn argitaratu berri dituzte Euskadiko ustiategi txikietara egokituriko betekizun higieniko eta sanitarioak ofizialki ezartzen dituzten aginduak; zehazki, **arrautzak** eta **esnekiak** ekoizten eta merkaturatzen dituzten ustiategiei dagozkienak:

- Arrautzak: [AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegitureteko sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena](#), A kategoriako arrautza ez industrialetarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.
- Esnekiak: [AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 12koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegitureteko sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena](#), esneki eta izozkietarako baldintza higienikoak eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko zehatzak onartzen dituena.

Orain, **esne-bolumen eta arrautza kopuru txikia** eraldatzen duten Euskadiko ustiategiek euren errealitatera egokitutako eskakizunak bete ahal izango dituzte:

Esnekiak

- **Zein produktu?** Esne pasteurizatua, jogurtak, mamiak, kefirra, gazta freskoak eta erdionduak, gurinak, esne-gainak, gaztanbera, gutxienez 60 eguneko ontze-aldia duten eta esne gordinarekin eginda dauden gaztak eta esne-izozkiak.

Zenbateko bolumena? Gehienez ere:

- 100.000 litro behi-esne eraldatu urtean
- 30.000 litro ardi-esne
- 40.000 litro ahuntz-esne eraldatu urtean

[Liburuxka](#)

Arrautzetan

- **Zein produktu?** Oilo erruleen A kategoriako arrautzak, ustiategian bertan ekoitziak.

Zenbateko bolumena?

- 350 eta 1.000 oilo errule bitartean dutenak.

[Liburuxka](#)

Sektoreko agenteek eta Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Osasun Publikoko Sailak eta Foru-aldundiek elkarlanean jardun dute aukera berri honi bide emateko, **ELIKA**ren aholkularitzarekin eta koordinazioarekin.

Arau hauek, ondorengo Dekretu honen menpean garatu dira: [76/2016 DEKRETUA](#), maiatzaren 17koa, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzeko dena.

Euskadik higiene-araudia ekoizpen txikietara egokitzea arautu du 16/05/31

Eusko Jaurlaritzak honako dekretu hau argitaratu zuen maiatzaren 24an: **6/2016 DEKRETUA, maiatzaren 17koa, Euskadiko nekazaritzako elikagaien ekoizpeneko hainbat arlotan betekizun higieniko eta sanitarioak egokitzeko baldintzak ezartzeko dena.**

Araudi-esparru berri honek aukera ematen dio nekazaritzako elikagaien sektoreari erkidegoaren eskakizunak **ustiategi txikien ezaugarri berezietara egokitzeko**, une oro euren ekoizpenen segurtasuna bermatuz. Dekretua **ekoizpen-bolumen mugatu bat** (dagokion Jarraibide Teknikoan

ezarriko da) duten nekazaritzako elikagaien enpresa txikiei aplikatuko zaie.

Ekoizpen motak lehen mailakoa zein eraldaketakoa dira, eta **Euskal Autonomia Erkidegoan zuzeneko salmentaren edo merkaturatzeko zirkuitu laburraren bitartez merkaturatu ahal izango dira**, hau da, tokiko edo gertuko salmenta-modalitatean. Nekazaritzako elikagaien enpresek beharko dituzten baimenak eta erregistroak lehen mailako ekoizpeneko oinarritzakoak (REGA Abeltzaintza Ustategien Erregistro Orokorra, REGEPA Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorra) izango dira, eta, horrez gain, Osasun Sailari jakinarazi beharko diote aurretik (REACAV). Dekretua **Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Sailak eta Osasun Sailak** egin eta izenpetu dute elkarrekin.

Higiene- eta osasun-betekizunen egokitzapena produktu edo produktu talde bakoitzari dagozkion Jarraibide Teknikoetan adieraziko da, eta aurki onetsiko dira Autonomia Erkidegoko Agindu baten bitartez. Orain arrautzen eta esne-ekoizpenaren azpisektoreei dagozkien jarraibideak izapidetzen ari dira, eta, laster, egingo dira beste ekoizpen batzuk; esaterako, barazki-kontserbak eta marmeladak edo ogia eta opilak.

- [Deckretua laburtzen duen Poster-a](#) (gaztelianaz)

Dekretuaren edukia

- **Helburua:** Europako higienaren eta osasunaren arloko araudia Euskal Herriko nekazaritzako elikagaien ekoizpen txikietara egokitzea.
- **Aplikatzeko eremua:**ekoizpen-bolumen txikia eta familia-enpresaren egitura duten jarduerak, hala lehen mailako ekoizpena nola eraldaketakoa.Ekoizpen bakoitzaren tamaina eta bolumena zehaztuta egongo dira dagokion Jarraibide Teknikoetan.
- **Merkaturatzea:** Euskal Autonomia Erkidegora mugatuta dago, eta tokiko edo gertuko salmentaren modalitatea izango du (salmenta zuzena edo merkaturatzeko zirkuitu laburra).
- **Baimenak eta erregistroak:**aurretiko jakinarazpena Osasun Publikoari (REACAV) eta lehen mailako ekoizpenaren arloko oinarritzako erregistroak (REGA, REGEPA).

Aurrekariak

Nekazaritzako elikagaien establezimendu txikiek larri ikusten dute euren errentagarritasuna, Higiene Paketean ezarritako eskakizunak betetzeko egin behar diren **inbertsio ekonomikoak direla eta**, bereziki eraldaketarako instalazioei dagokienez. Euskal Autonomia Erkidegoan, **nekazaritzako elikagaien gero eta sektore eta kontsumitzaile gehiagok eskatzen dute osasun- eta higiene-eskakizunen egokitzapenean aurrera egiteko**, arlo horretako erkidegoko araudietan ezartzen den moduan.

Hori dela eta, Parlamentuak Eusko Jaurlaritzari eskatu zion Dekretu autonomiko baten bitartez Europako araudi horren egokitzapen bat aplikatu ahal izateko baldintzak erregulatzeko.

Agindu hori betetzeko, 2014ko otsailean Sailarteko Batzorde bat sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Osasun Sailburuordetzak eta Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna Saileko Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzak osatutakoa. Hortik aurrera, elkarrekin egin dute lan bi sailburuordetzek, Elikaren koordinazioarekin eta foru-aldundien eta nekazaritzako elikagaien arloko sektore-eragileekin batera.

Dekretu autonomiko hau argitaratu izana **aurrerapauso handia da**, zalantzarik gabe, **elikagaien tokiko ekoizpenaren eta merkaturatzeko zirkuitu laburren arloan egitasmo berriak ezartzeari eta garatzeari dagokionez edo lehendik zeudenak dibertsifikatzeari dagokionez.**